

AMEZKETA / 'Babiloniari' buruzko solasaldia Juan Mari Irigoien idazlearekin

Irakurketa Taldeak gonbidatu du idazlea eta etzi izango da solasaldia, 19:00etan, liburutegian.

ERREDAKZIOA

Herrian sortu den Irakurketa Taldeak gonbidatuta, Juan Mari Irigoien idazlea etzi izango da liburutegian Babilobia bere liburuaren inguruan hitz egiteko. Saioa 19:00etan izango da. Irakurketa Taldeak herritar guztiei gonbidapena luzatu nahi diete beraiekin batera parte hartzeko.

Taldea 2008an sortu zen eta Xabier Mendigurenen aholkularitzaren laguntzaz orain arteko ibilbidea egin dute. Hilean behin, urtero urtarrilean hasi eta maiatza-ekaina bitartean, aurretik adostutako liburua irakurri ondoren, liburuari buruzko solasaldia eginez biltzen dira. Bilera hauetan idazlea bertan izan dute batzuetan. Hala, besteak beste, Amezketara joan dira Karlos Linazasoro, Laura Mintegi, Katixa Agirre, Kirmen Uribe eta Uxue Alberdi.